



EPAIMAHAIAREN OHARTARAZPENA

Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskarako itzulpengintzako eta interpretazioko teknikari izateko lanpostu bat betetzeko oposizioa

2429/2025 EBAZPENA, azaroaren 7koa, Nafarroako Unibertsitate Publikoko kudeatzaileak emana, deialdi bat onesten duena Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskarako itzulpengintzako eta interpretazioko teknikari izateko lanpostu bat (A maila) oposizioaren sarrera-prozeduraren bidez betetzeko.

Bigarren probari buruzko oharra

1.- Eguna eta tokia:

Bigarren proba **2026ko irailaren 29an** izanen da, **asteartea, 10:00etan**, Nafarroako Unibertsitate Publikoko **Ikasgelategian, Iruñeko Arrosadiko campusean**, zehazki **309 ikasgelan**.

Izangaiek Nortasun Agiri Nazionalea, AIZa, pasaportea edo gidabaimena aurkeztu beharko dute.

2.- Teorikoa da proba, eta bi ariketa izanen ditu:

a) Lehenbiziko ariketa: gai-zerrendako parte espezifikoko gaien buruzko 15 galdera laburri erantzutea. Ariketa horri dagokion gehieneko puntuazioa 21 puntu izanen da.

b) Bigarren ariketa: gai-zerrendako parte orokorreko gaien buruzko 10 galderako testa egitea. Ariketa horri dagokion gehieneko puntuazioa 4 puntu izanen da. Lau erantzun posibleetatik bakarra izanen da baliozkoa, eta huts egindako galderak ez du penalizaziorik ekarriko.

Bazterturik geldituko dira proban gehieneko puntuazioaren erdia lortzen ez duten izangaiak.

Probak, guztira, **3 ordu iraunen du (180 minutu)**, etenik gabe, izangaiak nahi bezala banatzekoak ariketak egiteko.

3.- Probaren ezaugarriak:

Word dokumentu batean egin beharko da, ordenagailuan, **Interneteko konexiorik gabe**. Izangaiek ezin izanen dute gailu elektronikorik edo bestelako materialik erabili.

Iruñean, 2026ko irailaren 2an.

Epaimahaiburua
Aitor Leoz Blanco